

Ebaluazio hezitzaile eta hezigarria; Adimen Artifiziala erraztatzaile gisa: estrategia digitalak, tradizionalak eta etikoak EAEko curriculum dekretuen markoan



Ebaluazioa hezkuntza eraldatzeko giltza izanik, eragile guztiontzako EAEko marko propio eta bateratu batek jantziko du formakuntza hau, Adimen Artifiziala ere ebaluatzeko baliabide eta aukera gisa ulertuz.

Eka. 26 - Eka. 27 2025

Kod. H05-25

Mod.:

Aurrez aurrekoa

Edizioa

2025

Jarduera mota

Uda Ikastaroa

Data

Eka. 26 - Eka. 27 2025

Kokalekua

Miramar Jauregia

Hizkuntzak

Euskara

Balio akademikoa

20 ordu

Antolakuntza Batzordea

Azalpena

Ebaluazioaren marko hezitzaile eta hezigarriaren baitan, irakasleoi ebaluazio inklusibo, irisgarri, bidezko eta kalitatezkoa sortzeko Adimen Artifizialak ematen dituen aukerak jorratzea da Uda Ikastaro honen helburua.

Hala, Adimen Artifizialaren aplikazio etikoak eta erreminten aukeretan sakonduko da.

Helburuak

Egungo curriculumarekin lerrokatutako testuinguru digitaletan eta ez digitaletan ebaluatzeko trebetasunak garatzea.

Ebaluazioan irakaskuntza lanak indartuko eta sinplifikatuko dituzten Adimen Artifizialeko tresnak ezagutzea eta aplikatzea.

AA, tresna digitalak eta metodo tradizionalak barne hartzen dituzten ebaluazio estrategia berritzaileak diseinatzea.

Hezkuntza ebaluazioan AA erabiltzearen etikari, ekitateari eta erronkei buruz hausnartzea.

Irakasleak gaitzea AA erabil dezaten ebaluazioa pertsonalizatzeko eta txostenak sortzen laguntzeko.

Lankidetzak



Programa

2025-06-26

09:15 - 09:25 Jardueraren zuzendaritzaren aurkezpena
Ane Lizeaga Zabalegi | Berritzegune Nagusia - Aholkularia

09:30 - 13:30 “EAEko ebaluazio markoa: legetik praktikara.”
Asier Ibeas Sacristan | Berritzegune Nagusia - Aholkularia
Ane Lizeaga Zabalegi | Berritzegune Nagusia - Aholkularia
Roberto Pastor Remiro | Berritzegune Nagusia - Aholkularia

2025-06-27

09:30 - 13:30 “Diseinua eta inplementazioa. Baliabideak eta metodologia.”
Asier Ibeas Sacristan | Berritzegune Nagusia - Aholkularia
Ane Lizeaga Zabalegi | Berritzegune Nagusia - Aholkularia
Roberto Pastor Remiro | Berritzegune Nagusia - Aholkularia

Zuzendaritza



Asier Ibeas Sacristan

Berritzegune Nagusia

Berritzegune Nagusia - EAEko Hezkuntza Saila Lehen Mailako Heziketarako Irakaslea ikasketetan Diplomaturia (EHU-UPV, 2012) eta Lehen Mailako Heziketarako Ingeleseko Irakaslea ikasketetan Gradutua (UPSA, 2013) da. EAEko askotariko HLHItan irakasle, koordinatzaile eta Berrikuntza Arduraduna (BeA) izan ondoren, 2024 geroztik, Berritzegune Nagusiko digitalizazio eta berrikuntza tekno-pedagogikoaren aholkularitzan dihardu; zehazki, Future Classroom Lab proiektua oinarri duen IkasLab ekimena EAEko HLHI eta BHI ikastetxe ezberdinak pilotatzen. Espazioa hirugarren hezitzaile gisa erabiliz eta teknologiak baliatuz, irakaskuntza ikaskuntza prozesuak hobetzeko eta inklusiboago egiteko helburuarekin. Bestalde, eragile ezberdinei, eraldaketa estrategietan eta trantsizio prozesuetan aholkularitza eskaini izan du arlor ezberdinetan, hala nola, ebaluazio global konpetentzialetan, materialgintzan, formakuntzan zein metodologia aktiboetan.

Irakasleak



Asier Ibeas Sacristan

Berritzegune Nagusia

Berritzegune Nagusia - EAEko Hezkuntza Saila Lehen Mailako Heziketarako Irakaslea ikasketetan Diplomaturatua (EHU-UPV, 2012) eta Lehen Mailako Heziketarako Ingeleseko Irakaslea ikasketetan Graduatua (UPSA, 2013) da. EAEko askotariko HLHItan irakasle, koordinatzaile eta Berrikuntza Arduraduna (BeA) izan ondoren, 2024 geroztik, Berritzegune Nagusiko digitalizazio eta berrikuntza tekno-pedagogikoaren aholkularitzan dihardu; zehazki, Future Classroom Lab proiektua oinarri duen IkasLab ekimena EAEko HLHI eta BHI ikastetxe ezberdinak pilotatzen. Espazioa hirugarren hezitzaile gisa erabiliz eta teknologiak baliatuz, irakaskuntza ikaskuntza prozesuak hobetzeko eta inklusiboago egiteko helburuarekin. Bestalde, eragile ezberdinei, eraldaketa estrategietan eta trantsizio prozesuetan aholkularitza eskaini izan du arlor ezberdinetan, hala nola, ebaluazio global konpetentzialetan, materialgintzan, formakuntzan zein metodologia aktiboetan.



Ane Lizeaga Zabalegi

Berritzegune Nagusia - EAEko Hezkuntza Saila Elektronikan ingeniari teknikoa (EHU-UPV, 2008). Bigarren Hezkuntzako masterra (UNIR, 2014). Proiektu elektrikoaren diseinuan eta obren jarraipenean arduradun gisa hasi zen lanean. Hezkuntza-munduan 2010. urtean hasi zen, bigarren hezkuntzan eremu zientifiko-teknologikoan eta lanbide heziketan eskolak ematen. Horrez gain, kalitateko arduradun izan da hainbat ikasturtetan. 2018. urtean teknologia arloko irakasle gisa hasi zen eskola publikoan. IKT arduradun izan da bi ikasturtez eta ziberbizikidetzaren sustatzeko lanetan aritu da. Ildo horretatik, bai eta bizikidetzaren ikuspegitik hainbat jardunalditan parte hartu du. 2023. urtea geroztik, Berritzegune Nagusiko aholkularia da, digitalizazioa eta berrikuntza tekno-pedagogikoko esparruan. Ikasturte honetan, ADI eskolako koordinatzaile aritu da, bereziki. Proiektu horren helburua ikastetxeetan pentsamendu konputazionala, programazioa eta robotika sustatzea izan da. Gainera, matematikarako errefortzu-programetan aritu da (Indartuz 4 programa eta PISA probaren prestaketa).



Berritzegune Nagusia - EAEko Hezkuntza Saila Industria-ingeniaritzan eta informazio geografikoaren teknologietan (GIS) eta hezkuntza-arloan ibilbide sendoa duen profesionala da. Gaur egun, aholkularia da Berritzegune Nagusian, eta aholkulari digital gisa jardun du 2022-2024 ikasturteetan, hezkuntza-teknologiaren integrazioa sustatuz. Hezkuntzan, Matematikako irakasle izan da Bigarren Hezkuntzan eta Batxilergoan 2016tik. Aurretik, profesional independente gisa lan egin zuen GIS aholkularitzan hamarkada bat baino gehiagoz, hirigintza, ingurumen, hiri-mantentze, kartografia digital eta geomarketineko proiektuak garatuz. Administrazio publikoan eta fabrikazio-industrian ere egin du lan teknikari gisa: bulego teknikoan, laguntza teknikoan eta esportazioan. Espezialista da kanpo-merkataritzan, nazioarteko marketinean eta digitalizazioan.

Matrikula prezioak

AURREZ AURRE	2025-06-26 ARTE
UIK euskaraz	74,00 EUR
Matrikula murriztua orokorra	63,00 EUR
Matrikula exentzioa	52,00 EUR
Gazte tarifa	25,00 EUR
Irakasteko ikasten - Eusko Jaurlaritza	63,00 EUR
Irakasteko ikasten - Nafarroako Gobernua	63,00 EUR
Euskaltegi edo autoikaskuntzarako zentro homologatatuko kide	63,00 EUR
Elkar	63,00 EUR

Kokalekua

Miramar Jauregia

Mirakontxa pasealekua 48, 20007 Donostia

Gipuzkoa